

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

OIARTZUNGO UDALA

Oiartzungo Udalaren sexu-jazarpenaren eta sexuagatiko jazarpenaren eta bestelako jokabide diskriminatzaileen aurrean jarduteko I. protokoloaren onarpena.

Oiartzungo Udalak, 2024ko martxoaren 20an egindako ohi-oso bilkuran, honako erabakia hartu du:

Lehenengoa. Oiartzungo Udalaren sexu-jazarpenaren eta sexuagatiko jazarpenaren eta bestelako jokabide diskriminatzaileen aurrean jarduteko I. protokoloa onartzea.

Bigarrena. Hartzen den erabakia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, udaltxeko iragarki-oholean eta bere webgunean argitaratzea.

Oiartzun, 2024ko apirilaren 2a.—Joana Mendiboure, alkatea.
(2817)

I. ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Oiartzungo Udalak, sexu-jazarpenaren, sexuan oinarritutako jazarpenaren eta bestelako jokabide diskriminatzaileen aurrean jarduteko I. Protokoloa onartuz, bere lidergoa eta arbuioa erakusten ditu lan-eremuan emakumeen eta LGTBIQ+ pertsonen aurkako indarkeria mota ororen kontra, baita sexu-indarkerien kontra ere.

Izan ere, sexu-jazarpenera eta/edo sexuan oinarritutako jazarpena bi indarkeria-modu larri dira, eta jende oro haien eraginpean badago ere, batez ere emakumeek eta LGTBIQ+ pertsonen aurkegin behar izaten diete. Egiturazko desberdintasunaren emaitza eta adierazpena dira, eta duintasunerako eta osotasun fisiko eta moralerako eskubidea, askatasunerako eskubidea, eta laneko segurtasun eta osasunerako eskubidea urratzen dituzte, besteak beste.

Lan arloan, portaera horiek guztiak ikusezin bihurtu daitezke eta biktimen zaurgarritasuna eta babesgabetasuna areagotu ditzakete, hainbat faktorek eraginda. Hona hemen: enplegatzaileen eta enplegatuen arteko nagusitasun-harremanak, lan baldintzak, eta kontzientzia nahikoa ez hartzea eta berdintasunaren aurkako erresistentziak, edota hari aurre egiteko prestakuntza espezializaturik eza edo behar den tresnarik ez izatea.

Sexu-jazarpenaren, sexuan oinarritutako jazarpenaren eta bestelako jokabide diskriminatzaileen aurkako jardunaren banean daude erakundeek berdintasuna eta diskriminaziorik eza sustatzeko, eta, bereziki, emakumeen eta gizonen eta LGTBIQ+ pertsonen arteko berdintasuna sustatzeko lan-harremanen eremuan, bai eta lan-arriskuen prebentzioaren ondoriozko betebeharren esparruan ere egin behar dituzten ekintzak.

2022-2025eko Oiartzungo I. Plan Feministaren jarduketaradatzetako bat emakumeen aurkako indarkeria matxistari buruzkoa da, eta horren helburua da, besteak beste, emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiten dioten emakumeei eta haien ardurapeko pertsonen aurka osoa bermatzea, ahalduzkearen ikuspegitik. Sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren ondoriozko kaltea detektatzeari, artatzeari eta erreparatzeari dagokionez, I. Planak ezartzen du Udalean sexuagatiko jazarpenaren aurkako prebentzio- eta jarduketa-protokoloak egitea

AYUNTAMIENTO DE OIARTZUN

Aprobación del I Protocolo de actuación ante el acoso sexual y por razón de sexo y otras conductas discriminatorias del Ayuntamiento de Oiartzun.

El Ayuntamiento de Oiartzun, en sesión plenaria celebrada el día 20 de marzo de 2024, adoptó el siguiente acuerdo:

Primero. Aprobar el I Protocolo de actuación ante el acoso sexual y por razón de sexo y otras conductas discriminatorias del Ayuntamiento de Oiartzun.

Segundo. Publicar el presente acuerdo en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y en su página web.

Oiartzun, a 2 de abril de 2024.—La alcaldesa, Joana Mendiboure.
(2817)

I. DECLARACIÓN INSTITUCIONAL

El Ayuntamiento de Oiartzun muestra a través de la adopción de su I Protocolo ante el acoso sexual, el acoso por razón de sexo y otras conductas discriminatorias, su liderazgo y rechazo frente todo tipo de violencias machistas contra las mujeres y contra las personas LGTBIQ+, incluidas las violencias sexuales, en el ámbito laboral.

El acoso sexual y/o el acoso por razón de sexo constituyen dos formas graves de violencia, si bien pueden afectar a cualquier persona son enfrentadas de manera desproporcionada por las mujeres y por las personas LGTBIQ+. Son el resultado y manifestación de la desigualdad estructural y atentan contra la dignidad, la integridad física y moral, la libertad y el derecho a la seguridad y salud en el trabajo, entre otros.

En el ámbito laboral, el acoso sexual y/o el acoso por razón de sexo pueden resultar invisibilizados y redundar en una mayor vulnerabilidad e indefensión de las víctimas, debido a factores como las relaciones de superioridad entre personas empleadoras y empleadas, las condiciones de trabajo o la insuficiente toma de conciencia y resistencias a la igualdad, la falta de capacitación especializada o de herramientas necesarias para su abordaje.

La actuación frente al acoso sexual, al acoso por razón de sexo y otras conductas discriminatorias se enmarca en las acciones que las organizaciones deben realizar para promover la igualdad y no discriminación, y en particular la igualdad de mujeres y hombres y de las personas LGTBIQ+ en el ámbito de las relaciones laborales, así como de las obligaciones derivadas de la prevención de los riesgos laborales.

El I Plan Feminista de Oiartzun 2022-2025 incluye entre sus ejes de actuación, uno específico en materia de violencia machista contra las mujeres que persigue, entre otros objetivos, garantizar una atención integral, desde la perspectiva del empoderamiento, tanto a las mujeres que enfrentan la violencia contra las mujeres como a las personas de las que son responsables. En relación con la detección, atención y reparación del daño como consecuencia del acoso sexual y el acoso por razón de sexo, el I Plan establece la elaboración e implantación de

eta ezartzea (7.2.2 ekintza); eta jazarpen-egoeren aurrean jarduteko udal-protokoloa definitzea, fenomeno horretan eragin dezaketen genero-faktoreei arreta berezia jarritz (7.2.3 ekintza).

Oiartzungo Udalaren xedea da protokolo hau tresna baliagarria izatea, eta gainerako politika feministekin eta lan-arriskuen prebentziarako politikekin batera, balio izatea diskriminaziorik gabeko lan-gune feminista eta berdinzalea eraikitzeko.

Protokolo honek printzipio eta betebeharrak ditu oinarri:

– Giza eskubideak eta oinarriko eskubideak errespetatu, babestu eta bermatzea, eta pertsona orok diskriminaziorik eta indarkeriarik gabeko lan-mundurako duen eskubidea bermatzea.

– Lidergo erakustea eta Oiartzungo Udaleko langile guztien eredu izatea, diskriminazio ororen ondorioz indarkeriarekiko eta, bereziki, indarkeria matxistarekiko eta LGTBQ+fobikoarekiko zero tolerantzia agertzeko, baita biktimei arreta, babesa, erreparazioa eta erreparazioa bermatzeko ere.

– Arreta egokia. Oiartzungo Udalaren erantzukizun instituzionala eremu guztietara zabalduko da protokolo honetan deskribatutako jokabideen aurrean emandako erantzuna.

– Tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa errespetatzea, eta ikuspegi intersektionala txertatzea enpleguan eta lanean. Oiartzungo Udalak bermatuko du protokolo honen ondoriozko jokaera orok ez duela inolako diskriminaziorik eragingo honako arrazoi hauengatik: sexua, sexu-orientazioa, sexu-identitatea, genero-adierazpena, arraza- edo etnia-jatorria, nazionalitatea, erlijioa edo sinesmenak, osasuna, adina, gizarte-maila, desgaitasuna, egoera zibila, migrazioa edo administrazio-egoera, edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozial.

– Oiartzungo Udaleko langileen segurtasuna eta osasuna eraginkortasunez babesteko eskubidea.

– Emakumeen eta diskriminazio-egoerei aurre egiten dietenen ahalduntzea.

– Oiartzungo Udaleko gizonak inplikatzeko berdintasunaren alde eta emakumeen kontrako indarkeria matxistaren aurka kontzientziatzeko, erantzukizuna hartzeko eta parte hartzeko, bai eta pertsona heterosexualek indarkeria LGTBQ+fobikoaren eta diskriminazio-egoeren ondorio diren gainerako indarkerien aurka ere kontzientzia har dezaten, erantzukizunez joka dezaten eta parte har dezaten, pertsona guztien giza garapenerako eta justizia soziala eta berdintasuna lortzeko bide gisa, bai eta lan-ingurune segurua erdiesteko ere.

– Oiartzungo Udalak bere erakunde berdintasuna, diskriminaziorik eza eta laneko arriskuen prebentzioa sustatzeko duen betebeharra.

– Oiartzungo Udalaren betebeharrak dira lanean askatasun sexualaren eta osotasun moralaren aurkako jokabideak saihesten dituzten lan-baldintzak sustatzea, arreta berezia jarrita sexu-jazarpenean, sexuan oinarritutako jazarpenean eta bestelako jokabide diskriminatzaileen jazarpenean, eremu digitalean egindakoak barne; prozedura edo protokolo espezifikoak prestatzea, barne harturik bai prebentzioa, bai garaiz atzematea, bai salaketa, bai portaera haien biktima izan direnentzako aholkularitza; eta informazioa eta sentsibilizazioa sustatzea eta prestakuntza eskaintzea udalaren zerbitzura dauden langileei, agintari publikoiei eta kargu publikoak dituztenei, sexu-indarkerien aurka babes osoa emateko.

– Oiartzungo Udalak, Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritza-rekin eta beste organo eskudun batzuekin lankidetzan, betebeharra du sexu-orientazio eta -identitateagatik, genero-adierazpenagatik edo LGTBQ+ langileek sexu-ezaugarriengatik tra-

protokolo de prevención y actuación ante el acoso sexista en el Ayuntamiento (acción 7.2.2.); y la definición de un protocolo municipal de actuación ante situaciones de acoso, con especial atención a los factores de género que puedan incidir en este fenómeno (acción 7.2.3.).

El Ayuntamiento de Oiartzun aspira a que este protocolo sea una valiosa herramienta que, junto al resto de políticas feministas y de prevención de riesgos laborales, sirva para construir un espacio laboral feminista, igualitario y libre de toda discriminación.

El presente Protocolo se asienta en los siguientes principios y obligaciones:

– Respeto, protección y garantía de los derechos humanos y fundamentales y asegurar el disfrute del derecho de toda persona a un mundo del trabajo libre de discriminación y violencia.

– Liderazgo y ejemplo a todo el personal del Ayuntamiento de Oiartzun de mostrar una tolerancia cero a la violencia como consecuencia de toda discriminación y en particular a la machista y a la LGTBQ+fóbica, así como de garantizar la atención, protección, recuperación y reparación de las víctimas.

– Diligencia debida. La respuesta ante las conductas descritas en este protocolo se extenderá a todas las esferas de la responsabilidad institucional del Ayuntamiento de Oiartzun.

– Respeto al principio de igualdad de trato y no discriminación e integración de la perspectiva interseccional en el empleo y la ocupación. El Ayuntamiento de Oiartzun garantizará que toda actuación derivada del presente protocolo no incurre en discriminación alguna por motivos de sexo, orientación sexual, e identidad sexual, expresión de género, origen racial o étnico, nacionalidad, religión o creencias, salud, edad, clase social, discapacidad, estado civil, migración o situación administrativa, o cualquier otra condición o circunstancia personal o social.

– Derecho a una protección eficaz de la seguridad y salud del personal del Ayuntamiento de Oiartzun.

– Empoderamiento de las mujeres y de quienes enfrenten situaciones de discriminación.

– Implicación de los hombres del Ayuntamiento de Oiartzun para su toma de conciencia, responsabilidad y participación a favor de la igualdad y en contra de la violencia machista contra las mujeres, así como de las personas heterosexuales hacia la violencia LGTBQ+fóbica y del resto de violencias que derivadas de situaciones de discriminación, como vía para el desarrollo humano de todas las personas y la consecución de la justicia social y la igualdad, así como de un entorno seguro de trabajo.

– Obligación del Ayuntamiento de Oiartzun de promover la igualdad y la no discriminación y la prevención de los riesgos laborales en su organización.

– Obligación del Ayuntamiento de Oiartzun de promover las condiciones de trabajo que eviten las conductas que atenten contra la libertad sexual y la integridad moral en el trabajo, incidiendo especialmente en el acoso sexual, el acoso por razón de sexo y el acoso discriminatorio, incluidos los cometidos en el ámbito digital; de arbitrar procedimientos o protocolos específicos para su prevención, detección temprana, denuncia y asesoramiento a quienes hayan sido víctimas de estas conductas; y de promover la información y sensibilización y ofrecer formación para la protección integral contra las violencias sexuales al personal a su servicio, autoridades públicas y a quienes ostenten cargos públicos.

– Obligación del Ayuntamiento de Oiartzun de velar por el cumplimiento efectivo de los derechos a la igualdad de trato y no discriminación por razón de orientación e identidad sexual, expresión de género o características sexuales de las personas

tu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ezarako dituzten esku-bideak benetan betetzen direla zaintzeko.

– Oiartzungo Udalak bere langileen kode etiko eta jokabide-kode bat egiteko beharra.

– Oiartzungo Udalak honako betebeharrak hauek izango ditu: arrisku psikosozialen ebaluazioak aurreikustea, prebentzio-neurriak hartzea, jarduera-protokoloak egitea eta aplikatzea, dirulaguntzen, kontratazioen eta hitzarmenen deialdietan emakumeen eta LGTBQ+ pertsonen tratua eta aukera-berdintasunerako ekintza positiboko neurriak hartzea, bai eta araudian jasotako edozein diskriminaziori aurre egiten dioten gainerako pertsonenak ere.

– Oiartzungo Udalaren betebeharrak biktimei arreta osoa, doakoa, eskuragarria eta kalitatezkoa izateko eskubidea bermatzeko, indarkeria-egoera horien ondorioz dituzten premiei erantzuteko.

– Datu pertsonalak babesteko indarrean dagoen araudia betetzeko eta errespetatzeko betebeharrak.

Oiartzungo Udalak sexu-jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena eta bestelako jokabide diskriminatzaile batzuk lan-eremuan prebenitu, haien kontra jardun, zigortu eta erreparazioa eman behar du, eta ez ditu inolaz ere onartuko. Hori dela eta, konpromiso hauek hartzen ditu:

– Adieraztea eta zabaltzea: jokabide horien gaitzespena formalki idatziz adieraztea eta zabaltzea, haien era eta modalitate guztietan, bai eta protokolo honen edukia zabaltzea ere.

– Sustatzea: Lan-eremuan emakumeen aurkako indarkeria matxistaren, indarkeria LGTBfobikoaren eta bestelako jokabide diskriminatzaile batzuen prebentzio-kultura sustatzea, eta langile guztientzako prestakuntza-, informazio- eta sensibilizazio-ekintzak garatzea.

– Duintasuna errespetatzeko betebeharrak: Nolanahi ere, langile guztiak langileen duintasuna errespetatuko duen lan-ingurunea bermatzen lagunduko dute, eta, horretarako, protokolo honetan eta indarrean dagoen araudi aplikagarrian jasotako neurriak bete eta errespetatuko dituzte.

– Prozedurak ezartzea: Jarduteko konpromiso hori gauzatzeko aldera, Oiartzungo Udalak prozedurak, ekintzak eta tresnak ezarriko ditu deskribatutako jokabideak prebenitzeko, detektatzeko eta desagerrarazteko, eta, halakorik gertatuz gero, horiek aztertu eta dagozkien neurri zuzentzaileak eta babes-neurriak hartzeko.

– Profesionaltasunez, inpartzialtasunez, errespetuz eta zuzentziaz salatu, ikertu eta zehatzea.

– Laguntzea eta erreparazioa ematea: Biktimei laguntza integrala eta espezializatua ematea, eta biktimak errekupeatzeko eta erreparazioa emateko behar diren neurriak ezartzea.

– Aitortzea: Ezinbestekoa da sindikatu-ordezkaritzaren eginkizuna aitortzea sexu-jazarpena, sexuagatiko jazarpena eta bestelako jokabide diskriminatzaile batzuk prebenitzeko eta salatze-ko, lan-arloko araudia eta lan-baldintzak betetzen direla zaintzeko, sensibilizazio- eta informazio-lanak egiteko, eta enplegatutako publikoari laguntza eta ordezkaritza eskaintzeko.

– Informazioa jasotzeko eskubidea: Ordezkaritza sindikalak eskubidea izango du aldizka informazioa jasotzeko salaketan kopuruari buruz eta ikerketen emaitzei buruz, barne direla bai salaketan artxiboa, bai protokolo honetan aurreikusitakoaren arabera hartzen diren neurriak eta, eskubidea ere, arlo horretan egiten diren azterlan guztien berri izateko. Nolanahi ere, erakunde sindikalen ordezkariek konfidentzialtasuna errespetatu beharko dute beren ordezkaritzaren barnean ezagutu ditzaketen gertaerak dagokienez.

trabajadoras LGTBQ+, en el ámbito laboral en colaboración con la Inspección de Trabajo y Seguridad Social y otros órganos competentes.

– Obligación del Ayuntamiento de Oiartzun de elaborar un código ético y de conducta de su personal.

– Obligación del Ayuntamiento de Oiartzun de prever las evaluaciones de riesgos psicosociales, la adopción de medidas preventivas, la elaboración y aplicación de protocolos de actuación, así como incluir en las convocatorias de subvenciones, contratación y convenios medidas de acción positiva para la igualdad de trato y de oportunidades de las mujeres y de las personas LGTBQ+, así como del resto de personas que enfrenten cualquiera de las discriminaciones recogidas en la normativa.

– Obligación del Ayuntamiento de Oiartzun de garantizar a las víctimas el derecho a una atención integral, gratuita, accesible y de calidad que responda a sus necesidades derivadas de dichas situaciones de violencia.

– Obligación de cumplimiento y respeto de la normativa vigente en protección de datos de carácter personal.

El Ayuntamiento de Oiartzun debe prevenir, actuar, sancionar, reparar y no tolerar el acoso sexual, el acoso por razón de sexo y otras conductas discriminatorias en el ámbito laboral, por lo que se compromete a:

– Declarar y difundir: Declarar formalmente por escrito y difundir el rechazo a estas conductas, en todas sus formas y modalidades, así como difundir el contenido del presente protocolo.

– Promover: Promover una cultura de prevención de la violencia machista contra las mujeres, de la violencia LGTBfóbica y otras conductas discriminatorias en el ámbito laboral y desarrollar acciones formativas, informativas y de sensibilización para todo su personal.

– Deber de respetar la dignidad: En cualquier caso, todas las personas trabajadoras contribuirán a garantizar un entorno laboral en el que se respete la dignidad de las personas trabajadoras, observando y respetando, para ello, las medidas contenidas en este protocolo y en la normativa vigente aplicable.

– Dotar de procedimientos: Para hacer efectivo este compromiso de actuación, el Ayuntamiento de Oiartzun se dotará de los procedimientos, acciones e instrumentos que permitan prevenir, detectar y erradicar las conductas descritas y, para que en el caso de que ocurran, analizarlas y adoptar las medidas correctoras y de protección que correspondan.

– Denunciar, investigar y sancionar con profesionalidad, imparcialidad, respeto y reserva.

– Asistir y reparar: Prestar asistencia integral y especializada a las víctimas y establecer las medidas necesarias para su recuperación y reparación.

– Reconocer: Es imprescindible reconocer el papel de la representación sindical en la prevención y denuncia de situaciones de acoso sexual, de acoso por razón de sexo y de otras conductas discriminatorias, la vigilancia del cumplimiento de la normativa en materia laboral y de condiciones de trabajo, tareas de sensibilización e información, así como en el apoyo y representación de las empleadas y los empleados públicos.

– Derecho a recibir información: La representación sindical tendrá derecho a recibir información periódica sobre el número de denuncias, de los resultados de las investigaciones, incluyendo el archivo de denuncias, de las medidas que se adopten en virtud de lo previsto en el presente protocolo, y a ser informada de cuantos estudios se realicen en este ámbito. En todo caso, los y las representantes de las organizaciones sindicales, tendrán el deber de respetar la confidencialidad respecto de aquellos hechos de los que pudieran tener conocimiento en el ejercicio de su representación.

II. OIARTZUNGO UDALAREN SEXU-JAZARPENAREN ETA SEXUAGATIKO JAZARPENAREN ETA BESTELAKO JOKABIDE DISKRIMINATZAILEEN AURREAN JARDUTEKO PROTOKOLOA

(Protokoloak honako kontzeptu hauek definitzen ditu: sexu-jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena, bereizkeriazko jazarpena, jazarpen LGTBIQ+fobikoa, sexu-indarkeriak eta emakumeen aurkako indarkeria matxista lan-eremuan. Horiek guztiak, funtsean, protokolo honen xede dira, zeinak prebentzio-, jarduketak-, erreparazio- eta zehapen-neurriak antolatzen baititu).

1. Helburuak.

Protokolo honen helburu orokorra laneko eremuan emakumeen aurkako sexu-jazarpena, sexuagatiko jazarpena, bestelako jokabide diskriminatzaileen jazarpena, LGTBIQ+fobiko jazarpena, sexu-indarkeriak eta indarkeria matxista prebenitzea, detektatzea, horiei aurre egitea, desagerraraztea eta erreparatzea da, jasaten dituenak gainditu ahal izan ditzan, eta izan dituen kalteak eta ondorioak erreparatu ahal izan ditzan.

Azken helburua Oiartzungo Udalean berdintasuna eta diskriminaziorik eza sustatzea da, bereziki emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, eta emakumeen aurkako indarkeria matxista eta LGTBIQ+ pertsonen aurkako indarkeria desagerraraztea, erakundeko pertsonen osasuna babestea eta errespetuzko lan-eremu seguru bat eraikitzea.

Protokolo honen helburu espezifikoak hiru ardatz nagusiren gainean eraikitzen dira: prebentzioa, jarduketak eta erreparazioa.

1. Prebentzio-neurriak ezartzea, langileei eta protokolo hau aplikatzen zaienei jarraibideak emateko, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren aurkako adierazpenak identifikatzeko eta antzemateko, eta, bereziki, laneko sexu-askatasunaren eta osotasun moralaren aurkakoak, batez ere sexu-jazarpenaren eta/edo sexuan oinarritutako jazarpenaren eta jazarpen LGTBIQ+fobikoren aurkakoak, espazio fisikoan edo birtualean izan.

2. Oiartzungo Udalaren erakunde osoak arlo horretan garatutako politikak eta salaketa-prozedurak, bai eta dituen eskubideak eta erantzukizunak ere ezagutzen dituela ziurtatzea.

3. Jarduteko mekanismo arin, argi, konfidentzial eta eraginkorrak aurreikustea, kaltetutako pertsonen segurtasuna bermatzeko, bai eta beharrezko babes-neurriak aplikatzea ere.

4. Diskriminazioari aurre egiten dioten emakumeek eta beste pertsona batzuek salatzeak dituzten oztopoak kentzea, eta babesa emango dieten eta modu seguruan salatzen lagunduko dieten mekanismoak sortzea.

5. Edozein diskriminazio eta/edo indarkeriaren biktimak ahalduzko neurriak ezartzea, bereziki emakumeentzat eta LGTBIQ+ pertsonentzat, entzunak izateko, bai eta errekupeatzeko eta eragin ahal izan zaizkien kalteak erreparatzeko ere, eta halakorik berriro gertatuko ez dela ziurtatzeko, eta, hala dagokionean, zehapena ezartzeko jokabideak gauzatu dituztenei.

2. Aplikazio-eremua.

2.1. Aplikazio-eremu pertsonala.

Protokolo hau Oiartzungo Udaleko sektore instituzionaleko enplegatu publiko guztiei, karguak dituzten pertsonen eta Oiartzungo toki-administrazioko behin-behineko langileei aplikatuko zaie, bai eta lan egiten duten pertsonen ere, haien kontratu-egoera edozein delarik ere, hala nola prestakuntzan dauden pertsonak –barne direla praktiketako pertsonak–, kaleratutako langileak, boluntarioak, lan bila dabilzan pertsonak eta enplegu baterako proposatutakoak, hainbat erakunderen arteko koordinazioaren bidez azpikontratutako langileak, eta enplegatu baten agintaritzak, eginkizun edo erantzukizunak betetzen dituztenei, betiere Oiartzungo administrazioaren enplegu-esparruari eta ha-

II. PROTOCOLO ANTE EL ACOSO SEXUAL Y EL ACOSO POR RAZÓN DE SEXO Y OTRAS CONDUCTAS DISCRIMINATORIAS DEL AYUNTAMIENTO DE OIARTZUN

(El Protocolo define los conceptos de acoso sexual, acoso por razón de sexo, acoso discriminatorio, acoso LGTBIQ+fóbico, violencias sexuales y violencia machista contra las mujeres en el ámbito laboral, que son, en esencia, objeto de éste, y articula medidas para la prevención, actuación, reparación y sanción).

1. Objetivo del protocolo.

El objetivo general de este protocolo es la prevención, detección, actuación, erradicación y reparación ante las conductas que constituyan acoso sexual, acoso por razón de sexo, acoso discriminatorio, acoso LGTBIQ+fóbico, violencias sexuales y violencia machista contra las mujeres en el ámbito laboral, para que quien las enfrente pueda superarlas, reparar el daño y las consecuencias que haya tenido.

El fin último es promover la igualdad y no discriminación, especialmente la igualdad de mujeres y hombres y la erradicación de la violencia machista contra las mujeres y de las personas LGTBIQ+ en el Ayuntamiento de Oiartzun, proteger la salud de las personas de la organización y construir un espacio de trabajo respetuoso y seguro.

Los objetivos específicos de este protocolo se construyen sobre tres ejes centrales: la prevención, la actuación y la reparación.

1. Establecer medidas preventivas que permitan proporcionar a las personas trabajadoras y a las que sea de aplicación este protocolo, pautas para identificar y reconocer las manifestaciones que atentan contra la igualdad y la no discriminación y en particular contra la libertad sexual y la integridad moral en el trabajo, especialmente el acoso sexual y/o el acoso por razón de sexo y LGTBIQ+fóbico, sean en el espacio físico o virtual.

2. Asegurarse de que toda la organización del Ayuntamiento de Oiartzun conoce las políticas desarrolladas en esta materia, los procedimientos de denuncia, así como sus derechos y responsabilidades.

3. Prever mecanismos de actuación ágiles, claros, confidenciales y eficaces para garantizar la seguridad de las personas afectadas, así como la aplicación de las medidas de protección necesarias.

4. Remover los obstáculos que dificultan denunciar a las mujeres y a otras personas que enfrentan discriminación y crear mecanismos que les respalden y que les permitan hacerlo de una forma segura.

5. Establecer medidas para el empoderamiento de las víctimas de cualquier discriminación y/o violencia, en particular para las mujeres y para las personas LGTBIQ+ para ser escuchadas, así como para la recuperación y reparación de los daños que se les hayan podido ocasionar, y asegurar la no reiteración y cuando corresponda la sanción a quienes hayan ejercido las conductas.

2. Ámbito de aplicación.

2.1. Ámbito de aplicación personal.

El presente protocolo será de aplicación a todas las empleadas y empleados públicos del sector institucional del Ayuntamiento de Oiartzun, a las personas que detentan cargos, al personal eventual de la Administración local de Oiartzun, así como a las personas que trabajan, cualquiera que sea su situación contractual, como las personas en formación –incluidas las personas en prácticas–, las personas trabajadoras despedidas, las voluntarias, las personas de empleo y las postulantes a un empleo, al personal subcontratado por la coordinación entre diversas entidades, y a las personas que ejercen la autoridad, las funciones o las responsabilidades de una persona empleada,

ren politikariei dagokienez, eta deskribatutako jokabideak toki-administrazio horren lan-eremuaren barnean gertatzen badira.

Protokolo hau aplikatuko da, halaber, inplikatuak badaude Oiarzungo Udalaren mendeko langileak eta beste enpresa, erakunde edo administrazio bateko langileak, edo erakunde kontratista bateko edo Oiarzungo toki-administrazioarekin antzeko harremana duen erakunde bateko langileak eta, era berean, administrazioaren edo aipatutako erakundearen erabiltzaileak. Horrenbestez, aipatutako langileen kasuan deskribatutako portae-rak gauzatu ahal dituztenean, eta, horregatik, langile haien gainean protokolo honetan adierazitako jarraibide eta mekanismo zehatzak bete beharko dira.

2.2. Aplikazio-eremu espaziala.

Protokolo hau aplikatzen zaie deskribatutako bereizkeriazko jokabideei, eta bereziki lan arloan askatasun sexualaren eta osotasun moralaren aurka gertatzen diren jokabideei, batez ere azpimarratuz lanean zehar, lanarekin loturik edo lanaren ondorioz gertatzen diren sexu-jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena eta jazarpen LGTBIQ+fobikoa, eremu digitalean egiten direnak barne:

a) Lantokian, baita espazio publikoetan eta pribatuetan ere, horiek lantoki direnean;

b) Langileari ordaintzen zaion lekuetan, langileak atsedena hartzen duen edo jaten duen lekuetan, edo instalazio sanitarioak edo garbiketakoak erabiltzen dituen lekuetan eta aldageletan, biltegietan, bai eta antzeko ezaugarriak dituen eta lanean aritzeko beharrezkoa den edo lan egitearekin lotura duen beste edozein lekutan ere.

c) Lanarekin zerikusia duten joan-etorri, bidaia, ospakizun, ekitaldi edo gizarte- edo prestakuntza-jardueretan.

d) Komunikazioen esparruan, informazioaren eta komunikazioaren teknologien bidez egindakoak barne (sare sozialak, mezularitzako aplikazioak, adimen artifiziala, etab.).

e) Eplegatzaileak emandako ostatuan.

f) Bizilekuaren eta lantokiaren arteko ibilbideetan; eta

g) Ondasun publikoetan.

2.3. Denborazko aplikazio-eremua.

Protokolo hau aplikagarria da eremu espazialean deskribatutako jokabideetan eta aurreko paragrafoetan mugatutako pertsonen eta lan-harremanak dirauen bitartean gertatzen diren harremanei dagokienez, lan-harremana edo administrazio-harremana formalki gertatu ez denean, baina langileak hautatzeko prozesuan edo antzekoen bidez hasi bada, edo funtzionario- edo lan-harremana edo lan-eremuan jatorria duen harremana eten denean, baina jokabideak hura amaitu ondoren ere gertatzen badira.

2.4. Kanpo geratzea.

Protokolo honen aplikaziotik kanpo daude aurreko paragrafoetan deskribatutako eremuetatik kanpo gertatzen diren jokabideak. Hala ere, tartean dauden pertsonen arteko lotura edo harremana beren lanegatik ezarri bada, Oiarzungo Udalak behar diren orientazio-, laguntza- eta aholkularitza-neurriak hartuko ditu bere zerbitzura dauden langileekiko, berdintasuna eta diskriminaziorik eza bermatzeko eta bere langileen osasuna babesteko betebeharrarekin bat. Protokolo hau ez da aplikatuko baldin eta tartean dauden alderdiak Oiarzungo toki-administrazioetik kanpoko langileak badira. Hala ere, kasu horietan, jokabideak edozein udal-instalaziotan gertatu direnean, udala elkarlanean

en relación siempre al ámbito del empleo de la administración de Oiartzun y a su personal político y siempre que las conductas descritas se produzcan dentro del ámbito laboral de esta administración local.

También será de aplicación este protocolo cuando esté implicado personal dependiente del Ayuntamiento de Oiartzun y personal de una empresa, entidad o administración ajena, entidad contratista o de análoga relación con la administración local de Oiartzun, así como personas usuarias de la administración o de las mencionadas organizaciones, pueden ejercer las conductas descritas a las mencionadas personas trabajadoras, y por ello, sobre éstas se deberán seguir las pautas y los mecanismos concretos que se indican en este protocolo, en el apartado relativo a los procedimientos de actuación.

2.2. Ámbito de aplicación espacial.

El presente protocolo se aplica a las conductas discriminatorias descritas, y en particular a las que atenten contra la libertad sexual y la integridad moral en el trabajo, incidiendo especialmente en el acoso sexual, en el acoso por razón de sexo y en el acoso LGTBIQ+fóbico, incluidos los cometidos en el ámbito digital, que ocurren durante el trabajo, en relación con el trabajo o como resultado de este:

a) En el lugar de trabajo, inclusive en los espacios públicos y privados cuando son un lugar de trabajo.

b) En los lugares donde se paga a la persona trabajadora, donde ésta toma su descanso o donde come, o en los que utiliza instalaciones sanitarias o de aseo y en los vestuarios y/o taquillas, en los espacios de almacén, así como cualquier otro de análogas características y relacionado o necesario para el ejercicio laboral.

c) En los desplazamientos, viajes, celebraciones, eventos o actividades sociales o de formación relacionados con el trabajo.

d) En el marco de las comunicaciones, incluidas las realizadas por medio de tecnologías de la información y de la comunicación como redes sociales, aplicaciones de mensajería, inteligencia artificial etc.

e) En el alojamiento proporcionado por la persona empleadora.

f) En los trayectos entre el domicilio y el lugar de trabajo; y

g) En los bienes públicos.

2.3. Ámbito de aplicación temporal.

El presente protocolo es de aplicación a las conductas descritas que se hayan producido en los ámbitos espaciales y con respecto a las personas delimitadas en los apartados precedentes y a las relaciones que se produzcan mientras la relación laboral o funcional sigan existiendo, cuando la relación laboral o funcional no se haya producido formalmente, pero haya habido un inicio a través de procesos de selección de personal o análogos, o cuando la relación funcional o laboral o que encuentre origen en el ámbito laboral haya cesado pero las conductas sigan produciéndose tras el cese.

2.4. Exclusiones.

Quedan excluidas de la aplicación del presente protocolo aquellas conductas que se produzcan fuera de los ámbitos descritos en los apartados anteriores. No obstante, siempre que el vínculo entre las personas implicadas se haya establecido por razón de su trabajo, el Ayuntamiento de Oiartzun, en cumplimiento con el deber de garantizar el derecho a la igualdad de trato y no discriminación, así como de proteger la salud de su personal, adoptará las medidas de orientación, acompañamiento y asesoramiento que sean necesarias con relación al personal a su servicio. Este protocolo no se aplicará en aquellos casos en los que las partes implicadas sean personal ajeno a la administración

arituko da kaltetutako pertsonak kide diren enpresa, erakunde edo administrazioarekin, haien jarduketaren prozedurak abian jarri laguntzeko.

3. Prebentzio-neurriak.

Protokolo honen ardatz nagusietako bat prebentzioa da, eta, horretarako, honako neurri hauek ezartzen dira, egokitzat jotzen diren neurri guztiak garatzeko aukera alde batera utzi gabe.

3.1. Kode etikoa eta jokabide-kodea Oiarzungo Udaleko langileentzat.

Onartu berri den 11/2022 Legeak, abenduaren 1ekoak, Euskal Enplegu Publikoarenak, 166. artikuluan jasotzen du euskal administrazio publikoek beren langileentzako kode etiko eta jokabide-kode bat onartu behar dutela, kontuan hartuta balio eta printzipio etikoak erakunde bakoitzari dagozkioa, eta ez erakunde horien barruan zerbitzua ematen duten giza kolektiboetako bakoitzari, beren funtzioetan dihardutela. Horregatik, Oiarzungo Udalak konpromisoa hartu du protokolo hau onartu eta urtebeteko epean kode etiko eta jokabide-kode bat onartzeko.

3.2. Arriskuak prebenitzeko eta ebaluatzeko plana.

Protokolo honetan deskribatutako jokabideak laneko arriskuak dira edo izan daitezke; haien aurrean, langileen segurtasuna eta osasuna babesteko prebentzio-neurriak hartu behar dira. Horrenbestez, Oiarzungo Udalaren lan-arriskuen planean eta ebaluazioan kontuan hartu eta sartu behar dira, bai eta garatzen diren tresna eta politika guztietan ere. Prebentzio-neurrien jarraipena eta ebaluazioa egitea ahalbidetuko duten adierazleak sartuko dira, hala nola arduraduna, gauzatzeko epea eta gauzate-, eragin- eta emaitza-adierazleak.

Oiarzungo Udalak ziurtatuko du bere erakundeko langileen lan-arriskuen ebaluazioan sexu-indarkeriak sartu direla.

Oiarzungo Udalak, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bateginean (martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutakoa) jasotako betebeharrak eta 15/2022 Legearen 37. artikuluan xedatutako neurriez gain, kontratazio publiko, hitzarmen eta dirulaguntza guztietan: (i) protokolo edo tresna baliokide bat izatea sartuko du klausula gisa, 3/2007 Lege Organikoaren 48. artikulua eta 4/2023 legearen 15. artikulua ezarritakoa betetzeko, eta era berean, (ii) lan-arriskuen artean sexu-indarkeriak sartu izana langileek betetzen dituzten lanpostuen arriskuen balorazioan.

Oiarzungo Udalak bermatuko du Udalaren segurtasun eta osasunari buruzko politikak garatzen dituen pertsona fisiko edo juridikoak behar besteko prestakuntza espezializatua eta ibilbidea badiela protokolo honetan ezarritakoa betetzeko, eta baita ere Laneko Segurtasun eta Osasunari buruzko araudian eta gainerako betebeharrak eta indarrean dagoen gainerako araudian xedatutakoa betetzeko.

Oiarzungo Udalak prebentzio-jardueraren etengabeko jarraipena egingo du, saihestu ezin izan diren arriskuak identifikatzeko, ebaluatzeko eta kontrolatzeko jarduerak eta dauden babes-mailak etengabe hobetzeko, eta adostutako prebentzio-neurriak egokitzeko behar den guztia xedatuko du, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen xedatutakoaren arabera.

3.3. Informazioa, gaikuntza, kontsulta eta parte-hartzea.

Oiarzungo Udalak bere erakunde osoaren eskura jarriko du protokolo honen edukari buruzko informazioa eta gaikuntza, bai

local de Oiarzun. No obstante, en estos supuestos, cuando las conductas hayan tenido lugar en cualquiera de las instalaciones municipales, esta colaborará con la empresa, entidad o administración a la que pertenezcan las personas afectadas, con el fin de facilitar la puesta en marcha de sus respectivos procedimientos de actuación.

3. Medidas preventivas.

Uno de los ejes centrales del presente protocolo es la prevención, para lo que se establecen las siguientes medidas, sin perjuicio de que se puedan desarrollar cuantas medidas se consideren oportunas.

3.1. Código ético y de conducta para el personal del Ayuntamiento de Oiarzun.

La recién aprobada Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco, recoge en el artículo 166 la obligación de las administraciones públicas vascas de aprobar un código ético y de conducta para su personal, en la consideración de que los valores y principios éticos corresponden a cada institución y no a cada uno de los colectivos humanos que prestan servicio en su seno, en el ejercicio de sus funciones. Por ello, el Ayuntamiento de Oiarzun se compromete a elaborar en el plazo de un año, tras la aprobación de este protocolo, un código ético y de conducta.

3.2. Plan de prevención y evaluación de riesgos.

Las conductas descritas en el presente protocolo representan o pueden representar riesgos laborales, frente a los cuales deben adoptarse medidas preventivas de protección de la seguridad y de la salud del personal empleado, por lo que habrán de ser tenidas en consideración e incluidas en el Plan y en la Evaluación de los riesgos laborales del Ayuntamiento de Oiarzun y en cuantas herramientas y políticas se desarrollen. Se incorporarán indicadores que permitan el seguimiento y evaluación de las medidas preventivas tales como responsable, plazo de ejecución e indicadores de ejecución, impacto y resultado.

El Ayuntamiento de Oiarzun se asegurará de haber incluido las violencias sexuales en la evaluación de los riesgos laborales de las trabajadoras de su organización.

El Ayuntamiento de Oiarzun incluirá como cláusula en todas las contrataciones públicas, convenios y subvenciones, además de las obligaciones recogidas en el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, aprobado mediante Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo y de las medidas dispuestas en el artículo 37 de la Ley 15/2022, las siguientes exigencias: (i) contar con un protocolo o instrumento equivalente en cumplimiento del artículo 48 de la Ley Orgánica 3/2007 y del artículo 15 de la Ley 4/2023, e (ii) incluir las violencias sexuales entre los riesgos laborales en la valoración de riesgos de los puestos de trabajo ocupados por trabajadoras.

El Ayuntamiento de Oiarzun garantizará que la persona física o jurídica que desarrolle las políticas relativas a la seguridad y salud del Ayuntamiento cuente con la formación especializada suficiente y trayectoria para dar cumplimiento a lo estipulado en el presente protocolo, en el artículo relativo a la Seguridad y Salud Laboral y demás obligaciones, así como del resto de la normativa en vigor.

El Ayuntamiento de Oiarzun desarrollará una acción permanente de seguimiento de la actividad preventiva con el fin de perfeccionar de manera continua las actividades de identificación, evaluación y control de los riesgos que no se hayan podido evitar y los niveles de protección existentes y dispondrá lo necesario para la adaptación de las medidas de prevención acordadas, conforme a lo dispuesto en la Ley 31/1995, de 8 de noviembre, de prevención de riesgos laborales.

3.3. Información, capacitación, consulta y participación.

El Ayuntamiento de Oiarzun proporcionará a toda su organización, de forma accesible, la información y capacitación acerca

eta protokolo honetan jasotako jokabideen arriskuei buruzkoa ere, baita prebentzio- eta babes-neurriei buruzkoa ere, dituen eskubideak eta erantzukizunak barne.

Oiartzungo Udalak sexu-indarkerien berri emango die langileei, eta prestakuntza jaso dutela ziurtatuko du, 10/2022 Lege Organikoaren 13.2 artikulua araber.

Oiartzungo Udalak edukia Interneteko plataforma nagusietatik kentzeko mekanismoei eta salaketa-bideei buruzko informazioa emango du.

Oiartzungo Udalak langileen prestakuntza sustatuko du sare sozialak eta IKTak modu egokian eta errespetuz erabil ditzaten berdintasunerako, osasunerako eta intimitatea babesteko esku-bidearekin, eta protokolo honetan jasotako jokabideei dagokienez ingurune digitalak dakartzan arriskuez jabetzea sustatuko du.

Protokolo honetan esleitutako eginkizunak dituzten pertsona guztiek derrigorrezko prestakuntza jaso beharko dute urtero protokoloan jasotako gaien inguruan, eta gaiarekin zerikusia duten jardunaldi eta biltzarretan parte hartzen lagundu beharko zaie.

Informazio- eta prestakuntza-jarduerak eta antzeko jarduerak, bai eta protokolo honen ondoriozko zabalkunde-gai eta -kanpainak ere, Idazkaritza saileko aurrekontu-partidan jaso beharko dira urtero.

Oiartzungo Udalak langile guztien eta, bereziki, emakumeen eta zaurgarritasun-maila handiena duten talde edo kolektiboen parte-hartzea izango duela ziurtatuko du, protokolo honetan deskribatutako jokabideen ondoriozko arriskuak identifikatu eta ebaluatzeko.

Horretarako, Oiartzungo Udaleko emakumeek beren bizipenak partekatu ahal izateko guneak sortzea sustatuko du aktiboki.

Oiartzungo Udalarentzat funtsezkoa da bere erakunde osoak parte hartzea, eta, beraz, egokitzat jotzen duenak protokolo honen aplikazioari eta hobekuntzari buruzko edozein informazio helarazi ahal izango die Berdintasunerako Sailari edo protokolo honetan deskribatutako organoei, aurreikusitako helburuak lor-tze aldera.

3.4. Zabalkundea eta komunikazioa.

Oiartzungo Udalak protokolo honen zabalkundea ziurtatuko du eta dagozkion lan-espazio fisiko eta birtualetan sartuko du, haren eskuragarritasuna eta irakurketa ziurtatzeko neurriak ezar-ritz. Era berean, protokoloa onartzen den unean nahiz ondoren aldizka hedatzeko aukera emango duten materialak garatuko ditu, betiere modu eskuragarrian, bai barruan, bai kanpoan.

Oiartzungo Udalak informazio- eta kontzientziazio-kanpainak egingo ditu, bere erakundeaz gain, erakunde laguntzaile, per-sona fisiko edo juridiko kontratistei zuzenduta, protokolo hau eta, oro har, zero tolerantziako politika hedatzeko.

Oiartzungo Udalak sentsibilizazio- eta dibulgazio-kanpainak egingo ditu tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren alde eta protokolo honetan deskribatutako jokabideen aurka, horien salaketa sustatuz.

3.5. Eremu digitala, datuen babesa, komunikazioa eta publizitatea.

Oiartzungo Udalak datu pertsonalen tratamendua errespe-tatuko dela bermatuko du, indarrean dagoen araudiaren araber, eta datu edo informazio pertsonalak erabiltzearen aurka agertuko da, helburua protokolo honetan deskribatutako jokabideak era-kustea denean.

del contenido del presente protocolo, así como de los peligros y riesgos de las conductas recogidas en este protocolo, así como de las medidas de prevención y protección, incluyendo sus de- rechos y responsabilidades.

El Ayuntamiento de Oiartzun informará a sus trabajadoras en relación con las violencias sexuales y se asegurará de haber- les formado, conforme al artículo 13.2 de la Ley Orgánica 10/ 2022.

El Ayuntamiento de Oiartzun informará sobre los mecanis- mos de retirada de contenidos de las principales plataformas en internet y los canales de denuncia.

El Ayuntamiento de Oiartzun promoverá la formación de su personal en el uso de las redes sociales y TICs de forma adecua- da y respetuosa con el derecho a la igualdad, a la salud y a la protección de la intimidad y promoverá la toma de conciencia de los riesgos que entrañan el entorno digital en relación con las conductas recogidas en este protocolo.

Todas las personas con funciones atribuidas en el presente protocolo habrán de recibir formación obligatoria anual en las materias en él recogidas, así como facilitarles la participación en jornadas y congresos relacionados con la materia.

Toda actividad informativa, formativa y de similar natura- leza, así como los materias y campañas de difusión que se deri- ven del presente protocolo habrán de ser contempladas anual- mente en la partida presupuestaria del departamento de secre- taría.

El Ayuntamiento de Oiartzun se asegurará de contar con la participación de toda su plantilla para la identificación y evalua- ción de los riesgos derivados de las conductas descritas en este protocolo, y de forma especial, con la participación de las muje- res, y de los grupos o colectivos que presentan un mayor grado de vulnerabilidad.

Para ello, promoverá activamente la creación de espacios donde puedan compartir sus vivencias las mujeres del Ayunta- miento de Oiartzun.

Para el Ayuntamiento de Oiartzun es fundamental contar con la participación de toda su organización, por lo que quien así lo considere, podrá hacer llegar al Departamento para la Igualdad o a los órganos descritos en este protocolo, cualquier información relativa a la aplicación y mejora del presente pro- tocolo en aras a alcanzar los objetivos previstos en el mismo.

3.4. Difusión y comunicación.

El Ayuntamiento de Oiartzun asegurará la difusión de este protocolo y lo incluirá en los correspondientes espacios de tra- bajo físicos y virtuales, estableciendo medidas que permiten asegurar su recepción y lectura. Asimismo, desarrollará mate- riales que permitan su difusión, al momento de la aprobación del protocolo como posteriormente de forma periódica, siempre de forma accesible, tanto a nivel interno como externo.

El Ayuntamiento de Oiartzun desarrollará campañas informa- tivas y de concienciación dirigidas no sólo a su organización sino también a las entidades colaboradoras, personas físicas o jurí- dicas contratistas para la difusión del presente protocolo, y, en general, de la política de tolerancia cero.

El Ayuntamiento de Oiartzun realizará campañas de sensi- bilización y divulgación para la igualdad de trato y no discrimina- ción y contra las conductas descritas en este protocolo, promo- viendo su denuncia.

3.5. Ámbito digital, protección de datos, comunicación y publicidad.

El Ayuntamiento de Oiartzun garantizarán el respeto en el tratamiento de los datos de carácter personal conforme a la nor- mativa en vigor y mostrarán su rechazo al empleo de los datos o información personales cuando su finalidad sea incurrir en las conductas descritas en este protocolo.

Oiartzungo Udalak sentsibilizazio- eta dibulgazio-kanpainak egingo ditu tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren alde eta protokolo honetan deskribatutako jokabideen aurka, bereziki sexu-jazarpenaren, sexuan oinarritutako jazarpenaren, bestelako jokabide diskriminatzaileetan oinarritutako jazarpenaren, emakumeen aurkako indarkeria matxisten eta sexu-indarkerien eta indarkeria LGTBIQ+fobikoen aurka, horien salaketa sustatuz.

Oiartzungo Udalak bere politikarien eta komunikazio instituzionalaren arduradunen prestakuntza ziurtatuko du, baita udaleko informazio- eta zabalkunde-materialak egiten dituztenena ere.

Oiartzungo Udalak akordioak sustatuko ditu informazioaren gizarteko zerbitzuak ematen dituzten enpresekin, esparru digitaletan behar bezala landu ditzaten protokolo honetan jasotako jokabideekin lotutako albisteak.

Oiartzungo Udalak ziurtatuko du zuzenean edo hirugarren pertsona fisiko edo juridikoen bidez egindako publizitate orok berdintasun-printzipioa betetzen duela.

Bi kasuetan, Oiartzungo Udalak indarrean ziurtatuko du indarren dagoen araudian jasotako betebeharrak integratzen dituela, eta, bereziki, 3/2007 Lege Organikoan, 10/2022 Lege Organikoan, 4/2023 Legean eta martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarako gabe bizitzeko Legearen testu bateginean ezarritakoak.

4. *Jarduketa-prozedura.*

4.1. *Printzipio orientatzaileak.*

Protokolo honetan aurreikusitako jarduketa-prozedurek honako printzipio eta berme hauek izango dituzte oinarri:

1. Errespetua. Jarduerak eta eginbideak tartean dauden pertsonen duintasuna ahalik eta gehien errespetatuz egingo dira, berdintasunari eta diskriminaziorik ezari dagokienez.

